



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2004ko azaroaren 30a.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:05 **AMAIERA-ORDUA:** 19:45

BERTARATUAK: **Alkatea**
Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Maria Elena Legarra Alfaro, , Ramon Etxeberria Aldaz, Martxiel Genoba Solaberrieta, Noemi Ostolaza Arkauz, Eugenio Cotado Iturain, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK:

Andoni Sarasua Oleden eta M. Jose San Sebastian Aranburu herritik kanpo daudelako.



Aztergai zerrenda

1. Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2005eko Aurrekontu Orokorren Proiektua.
2. Lehen onarpena ematea, egoki bada, 7/2004 zenbakidun Kreditu Aldaketako Espedienteari, Udal honen Aurrekontuaren 2004ko ekitaldiari dagokiona. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kredituen transferentzia.
3. Onartzea, egoki bada, Udal Hilerriaren zerbitzu eta kontzesio tasaren aldaketa, nitxoan adjudikazioa administrazioaren kontzesio erregimenean egiteko.
4. Onartzea, egoki bada, Orioko Udalerriko 4.1.2. Azkue guneko Konpentsazio Proiektuaren “5. PARTZELAKO” hiri-finkaren transmisioa, “ORIO GARATZEN, S.L.” Udal Elkarte Publikoaren alde, eta Alkatetzari ahalmen osoa ematea eskritura publikoa sinatzeko.
5. Eginaraztea, egoki bada, “ORIO GARATZEN, S.L.”-ri Azkue 4.1.2. eremuko 5. partzelan Oinarrizko Proiektuan jasotako obren exekuzioa, bai eta VPO/BOEn 16 etxebizitza, trasteleku eta garajeen exekuzioa ere.
6. Eginaraztea, egoki bada, “ORIO GARATZEN, S.L.”-ri Azkue 4.1.2. eremuko 6. partzelan Exekuzio Proiektuan jasotako Haur-eskolaren (Haur-eskola, 0 – 3 urte) obren exekuzioa.
7. Hartzea, egoki bada, uraren ziklo integrala dela-eta Osoko bilkuran hartutako akordioak.
8. Atxikitzea, egoki bada, EUDEL eta IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELECTRICA, S.A.U.-ren artean sinatutako hitzarmenera, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen aldetik udal jabetza publikoaren tasaren erabilera pribatuagatik edota aprobetxamendu bereziagatik.



9. Onartzea, egoki bada, Institutio mailako Deklarazio bat 2004ko azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta.
10. Candido Esoainek, ORIOKO ASKATASUNAREN izenean eta ordezkari gisa, aurkeztutako mozioa, 2004ko azaroaren 16an 17 euskal hiritar atxilotuak izan zirela eta.
11. Eskakerak eta galderak.

Esan-eginak

1. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2005EKO AURREKONTU OROKORRAREN PROIEKTUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2004ko azaroaren 25ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Arruabarrena (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Sarasua (EAJ-PNV), Etxeberria (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Legarra (EA), Cotado (EA) eta Rodríguez (PSE-EE-PSOE) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO ZORTZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Azkue (EA) zinegotziaren abstentzioarekin, guztira **ABSTENTZIO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2005eko aurrekontu propioari. Onartutako aurrekontuaren laburpena, kapituluka, hau da:

DIRU-SARRERAK

Kapitulua	Azalpena	Euroak
1.	Zerga zuzenak.....	545.163
2.	Zeharkako zergak.....	50.000



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta •

2004/11/30

3.	Tasak eta bestelako diru-sarrerak.....	1.842.526
4.	Transferentzia korronteak.....	2.378.408
5.	Ondarezko diru-sarrerak	228.976
6.	Inbertsio errealen enajenazioa.....	62.210
7.	Kapital transferentziak.....	283.006
8.	Finantza aktiboak	1.353
2005EKO DIRU-SARRERAK GUZTIRA		5.391.642

GASTUAK

Kapitulua	Azalpena	Euroak
1.	Pertsonalaren ordainsariak.....	1.870.151
2.	Ondasun korronteak eta zerbitzuak.....	1.211.881
3.	Finantz gastuak-Interesak	60
4.	Transferentzia korronteak.....	541.182
6.	Inbertsio errealak.....	1.765.368
8.	Finantza aktiboak	3.000
9.	Finantza pasiboen aldaketa (maileguen amortizazioa).....	0
2005EKO GASTUAK GUZTIRA.....		5.391.642

2.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalak % 100eko partaidetza duen ORIO GARATZEN S.L. sozietate publikoaren 2005eko aurrekontuari. Onartutako aurrekontuaren laburpena, kapituluka, hau da:

DIRU-SARRERAK

Kapitulua	Azalpena	Euroak
6.	Inbertsio errealen enajenazioa.....	607.382



8.	Finantza aktiboak	961.966
2005EKO DIRU-SARRERAK GUZTIRA		1.569.348

GASTUAK

Kapitulua	Azalpena	Euroak
2.	Ondasun korronteak eta zerbitzuak.....	1.127
3.	Finantz gastuak-Interesak	3.640
6.	Inbertsio errealak.....	1.564.581
9.	Finantza pasiboen aldaketa (maileguen amortizazioa)	0
2005EKO GASTUAK GUZTIRA.....		1.569.348

3.- ONARTZEA Udalaren 2005eko aurrekontu orokorra exekutatzeko oinarriak.

4.- Udalaren 2005eko aurrekontu orokorra **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege-arauetan ezarritakoa betez: Udal Erregimenari buruzko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legearen 112.3 artikulua eta Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 150.1 artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

Erakutsita dagoen lekua: Kontuhartzailletza.

Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea: hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka botoa eman zuten udalbatzakideek.

Inpugnatzeko arrazoiak: Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren infrakzioa.

Erreklamazioak aurkezteko: udaletxeko sarrera-erregistroan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.



Adierazitako informazio-epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Udalaren 2004ko aurrekontu propio hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

5.- **ONARTZEA** Udaleko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda 2005erako.

2. LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 7/2004 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEARI, UDAL HONEN AURREKONTUAREN 2004KO EKITALDIARI DAGOKIONA. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: KREDITUEN TRANSFERENTZIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko azaroaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2004ko aurrekontu propioari dagokion 7/2004 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 25.137,30 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu transferentziak.

2.- Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege-arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

Erakutsita dagoen lekua: Kontuhartzaitza.

Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea: hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontatzen hasita.

Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzakideek.

Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

Erreklamazioak aurkezteko: udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.



Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

3. ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL HILERRIAREN ZERBITZU ETA KONTZESIO TASAREN ALDAKETA, NITXOEN ADJUDIKAZIOA ADMINISTRAZIOAREN KONTZESIO ERREGIMENEAN EGITEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko azaroaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

ONARTZEA udal hilerriaren zerbitzu eta kontzesio tasaren aldaketa, nitxoan adjudikazioa administrazioaren kontzesio erregimenean egiteko.

4. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALERRIKO 4.1.2. AZKUE GUNeko KONPENTSazio PROIEKTUAREN “5. PARTZELAKO” HIRI-FINKAREN TRANSMISIOA, “ORIO GARATZEN, S.L.” UDAL ELKARTE PUBLIKOAREN ALDE, ETA ALKATETZARI AHALMEN OSOA EMATEA ESKRITURA PUBLIKOA SINATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko azaroaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

ONARTZEA, orioko udalerriko 4.1.2. azkue guneko konpentsazio proiektuaren “5. partzelako” hiri-finkaren transmisioa, “orio garatzen, s.l.” udal elkarte publikoaren alde, eta alkatetzari ahalmen osoa ematea eskritura publikoa sinatzeko.



5. EGINARAZTEA, EGOKI BADA, “ORIO GARATZEN, S.L.”-RI AZKUE 4.1.2. EREMUKO 5. PARTZELAN OINARRIZKO PROIEKTUAN JASOTAKO OBREN EXEKUZIOA, BAI ETA VPO/BOEN 16 ETXEBIZITZA, TRASTELEKU ETA GARAJEEN EXEKUZIOA ERE.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko azaroaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

EGINARAZTEA “ORIO GARATZEN, S.L.”-ri Azkue 4.1.2. eremuko 5. partzelan oinarrizko proiektuan jasotako obren exekuzioa, bai eta vpo/boen 16 etxebizitza, trasteleku eta garajeen exekuzioa ere.

6. EGINARAZTEA, EGOKI BADA, “ORIO GARATZEN, S.L.”-RI AZKUE 4.1.2. EREMUKO 6. PARTZELAN EXEKUZIO PROIEKTUAN JASOTAKO HAUR-ESKOLAREN (HAUR-ESKOLA, 0 – 3 URTE) OBREN EXEKUZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko azaroaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

EGINARAZTEA “ORIO GARATZEN, S.L.”-ri azkue 4.1.2. eremuko 6. partzelan exekuzio proiektuan jasotako haur-eskolaren (haur-eskola, 0 – 3 urte) obren exekuzioa.

7. HARTZEA, EGOKI BADA, URAREN ZIKLO INTEGRALA DELA-ETA OSOKO BILKURAN HARTUTAKO AKORDIOAK.



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa funtsean elkarte den zuzenbide publikoko erakunde bat da, Gipuzkoako hainbat udalerrik eratutakoa –besteak, beste Oriokoak– eta helburutzat, «lehen mailako sareetan, ur hornidura eta saneamenduaren azpiegitura jarri eta ustiatzea eta behar diren zerbitzuak ematea, guzti hau baldintza egokietan eta indarrean dagoen arautegiaren arabera» duena.

Bere estatutuek emandako xede horren arabera, Kontsortzioa da Orioko udalerrian lehen mailako sarearen saneamendua eta ur horniduraren zerbitzu publikoa, ur-zerbitzuaren abonatu edo bezeroen kudeaketa daramana, baina horrezaz gain, Kontsortzioak zabor-tasari dagokion Erroldaren mantenimenduaren kargu du, hortik sortutako errezihoak kobratzeko ardura, izan ere, urarenarekin batera kitatzen baitira.

Toki-jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Oinarrizko Legeak, Udalek, hala egitea nahi edo behar dutenean, ur-hornidura eta saneamendu zerbitzua partzuergoan eskain dezaketela ezartzen du;

Kontsortzioaren Estatutueta 7.2. artikulua bere aldetik hauxe seinalatzen du: «Horrela erabakiko lukeenean, Kontsortzioak ur zikloaren barruan beste fase batzuetara zabal ditzake helburuak, eskatuko luketen udalekin adostasunean eta aldez aurretik hitzarmena egin ondoren haiekin». Erabaki hori Kontsortzioaren Batzar Nagusiak 2000ko abenduaren 21ean egindako bilkuran hartu zuen, bilkura horren inguruan jasotako aktan azaltzen den moduan, bere Plan Estrategikoari emandako onespeneren ondorio eta «Ur Zerbitzuak SA» sozietatea erostearen ondorio.

Bestalde, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, toki-erakunde ez berezkoa denez, lege-xedapenen arabera –toki-jaurbidearen alorrean indarrean dauden lege xedapenen Testu Bateratuaren 110.5 artikulua– eta bere Estatutuen arabera (9. art.), zerbitzu publikoak eskaintzeko orduan dauden modu ezberdinak erabil ditzake. Alde horretatik, bere zerbitzuak kudeatzeko, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak elkarte anonimo bat du eratuta, kapital aldetik zeharo publikoa dena, Gipuzkoako Urak, S.A. izena duena.

Aurretikoak kontuan hartuta; udalaren interesei begira uraren ziklo osoaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea gauza ontzat hartzen denez; Kontsortzioak berak hartu dituen konpromisoak nolakoak diren ikusita –proposatutako Hitzarmenean islatutakoak–,

Udal idazkari nagusiak derrigorrezkoa den bezala lege-txostena egin duenez,

Toki-jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 55 d), 57.1 eta 87. artikuluek diotena erabilia; Toki-jaurbidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenen inguruko 781/1986 Lege Errege Dekretuaren 110. artikulua dioena kontuan izanda eta udalbatza honek beronek Toki-jaurbidearen Oinarriak dakartzan aipatu lege horren 22 f) artikuluz dituen ahalmenak aintzat hartuta, Orioko Udalbatzarrak gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):



Aurrena: 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, Orioko udalerriko uraren ziklo osoaren kudeaketa, udal hau berau kide den Gipuzkoako Ur Kontsortzioak partzuergo erara eskaini dezala erabakitzea, eta zehazkiago esanda, Kontsortzioaren sozietatearen bidez, hau da, «Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SA»ren bidez egitea aipatu kudeaketa hori.

Zerbitzu horren barruan sartuta dago ur-hornidura eta saneamendurako lehen mailako sarearen eta bigarren mailako sarearen kudeaketa egitea; baita horretarako behar diren inbertsioak egitearena ere.

Bigarrena: Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin izenpetuko den Hitzarmenaren testua –honekin batera doana– onartzea, eta horren indarrez,

—Gipuzkoako Ur Kontsortzioari, uraren ziklo osoari dagozkion tasak kudeatzeko, kitatzeko eta biltzeko eskumena ematea; baita zabor-tasena ere.

—hitzarmena indarrean dagoen bitartean, I. Eranskinean aipaturiko instalazioak eta ondasunak Kontsortzioari erabiltzen uztea horretarako agiria eginda.

Halaber, uraren ziklo osoaren kudeaketari lotutako ur-gozenak, uraren alorrean ahalmena edo eskumena duen erakundeak horri buruz eman behar duen bidezko ebazpena jarriko dira.

Hirugarrena: Mirari Arruabarrena Elizalde Andreari Hitzarmen hori izenpetzeko eta erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren gainontzeko agiri guztiak izenpetzeko baimena ematea.

Laugarrena: Erabaki hau argitara ematea.

Bostgarrena: Erabaki honek eska dezakeen Uraren Ziklo osoaren Ordenantza arauemailea berraztertzeke azterlanari ekitea.

8. ATXIKITZEA, EGOKI BADA, EUDEL ETA IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELECTRICA, S.A.U.-REN ARTEAN SINATUTAKO HITZARMENERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALEN ALDETIK UDAL JABETZA PUBLIKOAREN TASAREN ERABILERA PRIBATUAGATIK EDOTA APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko azaroaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):



ATXIKITZEA, EUDEL eta IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELECTRICA, S.A.U.-ren artean sinatutako hitzarmenera, euskal autonomia erkidegoko udalen aldetik udal jabetza publikoaren tasaren erabilera pribatuagatik edota aprobetxamendu bereziagatik.

9. ONARTZEA, EGOKI BADA, INSTITUZIO MAILAKO DEKLARAZIO BAT 2004KO AZAROAREN 25EAN EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Adierazpen instituzionalak hitzez hitz honela dio:

ADIERAZPEN I NSTITUZIONALA

2004ko azaroaren 25ean Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna dela-eta, udal honek honako ADIERAZPENA plazaratzen du:

- Emakumeen aurkako indarkeriak haien giza eskubideak eta funtsezko askatasunak urratzen eta zapaltzen dizkie.
- Indarkeria honen sorburua emakumeen bazterketa estrukturalan datza, bizitzaren eremu guztietan gertatzen dena. Indarkeria mota hau bazterketaren adierazpide soil bat baino gehiago da: bazterketari eusteko ezinbesteko kontrol sozialeko tresna, alegia.
- Emakumeen aurkako indarkeria ekidin egin daiteke, jarduketa eta politika ezberdinen bidez zenbait balore sustatuz: sexuen arteko berdintasuna, emakumeen autonomia eta ahalmen politiko, ekonomiko eta soziala indartzea, eta gatazkak konpontzeko bide baketsuen erabilera.
- Emakumeen aurka indarkeria erabiltzen dutenek jakin behar dute legeak horrelako ekintzak zigortzen dituela eta gizarte honek ez duela horrelako jokabiderik onartzen.
- Indarkeria honen biktimek gure gizartearen elkartasuna eta hurbiltasuna sentitu behar dituzte. Indarkeriaren gurpil zorotik irteteko behar dituzten baliabide material eta pertsonalak eskaini behar dizkiegu, bizimodu berri bati ekin ahal diezaioten.
- Aspaldion konpromiso politiko, sozial eta instituzionala nabarmen indartu da, gizartearen gaitz hau erauzteko helburuarekin. Halere, oraindik bide luzea dugu egiteko.
- Udal administrazioak oinarrizko papera du, bai emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen, bai biktimei laguntzen eta arreta egiten. Izan ere, udalerria da indarkeria hau gauzatzen den eremu fisikoa. Gainera, bere antolakuntzari esker, udala da gizarte arazo honetatik eta zerikusia duten pertsonetatik hurbilen dagoen instituzio publikoa.



Horrengatik guztiarengatik, udal honek, batetik, **KONPROMISOA** hartzen du, bere eskumeneen barruan, emakumeen berdintasunaren alde eta euren aurkako indarkeriaren kontra udal politika aktiboa izateko. Bestetik, udalerriko emakumeak (eta batez ere gizonak) indarkeria honen aurkako jarrera aktiboa azaltzera **ANIMATZEN DITU**, indarkeria hau ez onartuz, isilik ez geldituz eta biktimei lagunduz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

ONARTZEA instituzio mailako deklarazio bat 2004ko azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela eta.

10. CANDIDO ESOAINEK, ORIOKO ASKATASUNAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA, AURKEZTUTAKO MOZIOA, 2004KO AZAROAREN 16AN 17 EUSKAL HIRITAR ATXILOTUAK IZAN ZIRELA ETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak hitzez hitz honela dio:

ORIOKO ALKATEARI:

2004ko azaroaren 16an, 17 euskal herritar atxilotu ziren. Baltasar Garzónnek ETA-rekin kolaboratzea leporatzen die: laguntza, azpiegitura eta informazioa emateagatik.

150 polizia espainiarrek burutu zuten operazioa lau herrialdeetan zehar, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa.

Atxilotuak izan zirenak hauek dira: Iban Urrestarazu eta Alaitz Iturriotz (Ordizia), Margari Eizagirre (Zestoa), Aritz Romanelli eta Aitziber Igoa (Zumaia), Agustín Cabo eta Amaia Mundiñano (Antzuola), Gustavo Fernandez eta Koldo Lekuona (Gasteiz), Mainer Viso (Santutxu), Rubén Nieto (Alde Zaharra, Bilbo), Jon Duque (Portugalete), Lorea Azpilikueta (Alde Zaharra, Iruñea), Gorka Jaunarena eta Igor Astibia (Txantrea eta Errotxapea, Iruñea), eta Izaskun Villanueva eta Iban Medina (Berriozar).

Aritz Romanelli atxilotu eta ordu gutxitara askatu zuten, osasun arazo larriak zituela egiaztatu ondoren.

Euskal Herritar hauen atxiloketen ondorioz, **Orioko Askatasunak** puntu hauek aurkeztu ondoren Orioko udal batzordeari eskatzen dio onartzeko:



1. Udalak elkartasuna adierazten die atxilotuei eta bere senideei. Eta gaitzetsi inkomunikatuak dauden egun horietan jasan ditzaketen tortura fisiko eta psikologikoak.
2. Udal honek gogor salatu nahi du Estatu Espainiarrak eta Frantziarrak Euskal Herriaren kontra daraman politika errepresiboa eta ondorioz atxilotetak salatzen ditu. Horrela, bi estatuei dei egiten zaie elkarrizketaren bideari ekin diezaieten, errepresioaren bidea erabat baztertuz.

Orioko Askatasunak Udal Batzordeari ere gogoratu nahi dio sarekada honen aurretik, urriaren 3tik hasita beste 38 Euskal Herritar atxilotu direla. Bertan, Bilbon buruturiko operazio polizialean 11 atxilotuetatik 8 aske daude, infernutik pasa ondoren. Bestalde, adierazten dugu bide errepresiboak ez dakarrela ezer, sufrimendua areagotzea baizik. Elkarrizketaren bideari ekitea proposatzen dugu, eta beraz, bat egiten dugu ezker abertzaleak plazaratutako “**Orain Herria, orain bakea**” izeneko dokumentua eta ildo politikoak konponbiderako urrats garrantzitsuak baitira euskal gizarte osoarentzat.

ORIOKO ASKATASUNA

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 ezezko boto):

EZ ONARTZEA Candido Esoainek, Orioko Askatasunaren izenean eta ordezkari gisa, aurkeztutako mozioa, 2004ko azaroaren 16an 17 euskal herritar atxilotuak izan zirela eta.

Era berean, EAJ-PNV eta EA alderdi politikoek honako mozio alternatiboa aurkezten dute:

EAJ-PNV/Earen MOZIOA AZKEN EGUNETAN ORDIZIAN EMAN DIREN ATXILOKETEN AURREAN

Azken egunotan Euskal Herrian hainbat atxiloteta eman dira. Gertakari horrek gure herrian eta gure herritarren gain duen eragina kontuan izanik, Orioko Udalak behin eta berriro berrestu dituen oinarriak gogora ekarri nahi ditu osoko bilkurara aurkezten den mozio honen bitartez:

1. Orioko Udalak berriro ere giza eskubide guztien aldeko aldarrikapena egiten du eta kasu guztietan errespetatuak izan daitezela exijitzen du. Zentzu horretan, giza eskubideen urraketa suposatzen duten jokabide guztien aurrean bere gaitzespena adierazten du. Ez dugu onartzen, bakoitzaren diskurtso politikoaren interesen arabera soilik komeni denean salaketa egitea.
2. Testuinguru honetatik abiatuta, egun hauetan atxilotuak izan diren pertsonen giza eskubideak ere zorrozki errespetatuak izan daitezela exijitzen dugu. Alde batetik,



errugabetasun presuntzioaren eskubidea defendatu eta aldarrikatu nahi dugu, komunikabideen bitartez ematen den erruduntasun irudiaren aurrean. Zentzu honetan, neurri prebentiboak gehiegikeriaz erabiltzeak presuntzio hori deusez dezakeela ikusten dugu eta horrek pertsonengan kalte larriak sortzen ditu. Bestetik, atxilotuek dituzten eskubideak errespetatuak izan daitezen berme minimoak eman daitezela exijitzen dugu.

3. Azkenik, edozein gatazka konpontzeko bide elkarrizketatua sinisten dugula aldarrikatu nahi dugu, guztien errespetutik abiatuta eta bakoitzaren egitasmoak azaltzeko eta gauzatu ahal izateko bideak jorratuz. Lan horretarako soberan daude jarrera baztertzailerak eta indarkeriaren erabilera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezkoto boto):

ONARTZEA EAJ-PNV eta EA alderdi politikoei aurkeztutako mozio alternatiboa.

11. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Aztergai zerrendatik kanpo beste erabaki batzuk hartu ditu Udalbatzarrak, gaia alde zuzenetik eta **AHO BATEZ** urgentziazkoa izendatu ondoren (9 baiezkoto boto):

12. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ERAIKINEN TEILATU AZPIKO SOLAIRUEN ERABILERA BALDINTZEN UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2004ko azaroaren 29an egindako Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezkoto boto):



1. **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Eraikinen teiltatu azpiko solairuen erabilera baldintzen Udal Ordenantza Arautzaileari.
2. **JENDAURREAN JARTZEA** aipatutako Udal Ordenantza, toki-administrazioaren araubideko oinarrien arautzailea den apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 artikuluan ezarritakoa betez, interesatu orok 30 lanegunetan zehar erreklamazioak eta oharrak egin ditzan Udalaren aurrean. Adierazi Udal Ordenantza interesatuen eskueran egongo da Udaletxeko idazkaritzan lanegunetan, asteleheneetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara. Era berean adierazi nahi da akordio horri buruz aipatu epean ez bada erreklamaziorik eta oharririk egiten, behin betiko onartuko dela Udal Ordenantza.

13. AZURZA ETXEKO OBRAK ESLEITZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du, Azurza Etxean Gizarte-zerbitzuak eta Babestutako etxebizitzak egiteko, egitasmo teknikoaren arabera, prozedura irekiz, presako izapidegintzaz, eta esleitzeko lehiaketa formaz, eta 2004ko azaroaren 12an Gipuzkoako Foru Aldundiaren 218 zenbakidun Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Obrak esleitzeko irekitako baliozko epean, ondorengo lehiakideak aurkeztu dira aipatu kontrataziorako:

- 1.- MANUEL ETXAIDE, S.L.
- 2.- REFORMAS Y CONTRATAS GUIPÚZCOA, S.L.

Ikusita kontratazio mahaiak aho batez aipatu obrak egiteko kontratuaren esleipena **REFORMAS Y CONTRATAS GUIPÚZCOA, S.L.** merkataritza-sozietateari esleitzea proposatzen duela, puntuaketa altuena lortu duen proposamenaren egilea izanik, eta Baldintza Plegu Ekonomiko-Administratibo Bereizleak eta Udal Zerbitzu Teknikoak jasotako txostena jarraituz.

Udalbatza jakinaren gainean geratzen da eta Kontratazio Mahaiaren proposamenaz, eta eztabaidatu ondoren, gerturatutako lagunek **AHO BATEZ**, guztira **BAIEZKO BEDERATZI BOTO**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin udalbatza hamaika lagunek osatzen baitute, **ERABAKI DU**:

LEHENENGO.- Baliozkoa **DEKLARATZEA** 2004Kko azaroaren 30ean egindako pleguen irekiera.

BIGARREN.- **BEHIN BETIKO ESLEITZEA** eraberritze egitasmoan aurreikusita dagoen Azurza Etxean Gizarte-zerbitzuak eta Babestutako Etxebizitzak egiteko kontratua,



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta •

2004/11/30

Pilar Azurmendi Etxegarai Udal Arkitektoak idatzitako egitasmo teknikoaren arabera eta Orioko Udalak sustatuta, **REFORMAS Y CONTRATAS GUIPÚZCOA, S.L.** merkataritza-sozietateari, lanen esleipen prezioa **BOSTEHUN ETA BERROGEITA BOST MILA HIRUREHUN ETA LAU EURO ETA BI ZENTIMO (545.304,02.-)** izanik –Gastu Orokorrak, Irabazi Industrialak eta B.E.Z. barne–.

HIRUGARREN.- ITZULTZEA behin behineko fidantzak lehiaketa honetan aurkeztutako lizitatzaillei.

LAUGARREN.- JAKINARAZTEA Udalaren ebazpen hau enpresa lizitatzaille guztiei, jakinaren gainean egon daitezen, dagozkion ondorioak eta errekurtsio legalak izan ditzan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA